BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

3270

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 10ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Mundukide Fundazioa / Fundación Mundukide erakundeak 2011ko lankidetza proiektuentzako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fase I del programa de Desarrollo Socioeconómico del Distrito de Majune (2)» proiektuari uko egiteko eskaera onartzen duena.

2011rako Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako diru-laguntzak ematen dituen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2011ko abenduaren 14ko Ebazpenaren bidez, Mundukide Fundazioa / Fundación Mundukide erakundeari 147193 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Fase I del programa de Desarrollo Socioeconómico del Distrito de Majune (2)» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2014ko maiatzaren 16an bidalitako komunikazioan, bigarren eta hirugarren ordainketari uko egiteko eskaera partziala aurkeztu zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. idatz-zatiak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabehera jakinarazi beharko dio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Horrekin batera, baimen-eskaera bidali beharko dio proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik, eta aurrekontuan dituen ondorioak zehaztu.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean hasi ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Mundukide Fundazioa / Fundación Mundukide erakundeari 2011ko lankidetza proiektuentzako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fase I del programa de Desarrollo Socioeconómico del Distrito de Majune (2)» proiektuari uko egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, Erakundeak bigarren eta hirugarren ordainketatik justifikatu gabeko kopurua itzuli beharko du, hau da, 50.146,92 euro. Hau da, bigarren ordainketari dagozkion 20.708,32 euroko itzulketa egingo da eta hirugarren ordainketa egiteko akordioak (29.438,60 euro, hurrenez hurren) indarra galdu du.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 10a.

Garapeneko Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.